



Azpeitiko Udala

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatza Osoak bi mila hogeita bateko irailaren zazpian, hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

“AZPEITIAN IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO PLANA 2021” ONARTZEA.

Azpeitian irisgarritasuna sustatzeko plana 2021” onartzeari dagokionez, Hirigintza alorreko teknikariak honako hau dioen txostena egin du:

Irisgarritasuna sustatzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legeak ezarri du bere 13. atalean, tresna gisa, lau urterako programak egin behar dituztela udalek, beste hainbaten artean, dagoeneko titulartasun, erabilera edo zerbitzu publikoa duten hiri-inguruneetako, espazio publikoetako, eraikinetako, garraiobi-deetako eta informazio-sistemetakoa irisgarritasuna bermatzeko eta sustatzeko. Programen helburua elementu horiek legean eta hura: garatzen duen araudian aurreikusitako irisgarritasun-baldintzetara egokitzea da.

Hamarkada bat baino gehiago da Azpeitiko Udala, Irisgarritasun Plana edo Programa izenarekin, irisgarritasunean lanean ari dela. Aintzakotzat serio hartutako gaia izan da beti; plana egiteaz gain, bertan azaldutakoa kudeatu, exekutatu eta aurrera eman izan du. Hala ere, urteak aurrera doazen heinean, nahiz eta asko aurreratu, oraindik ere zer egitekoa badago herrian.

Orain arte egin diren Irisgarritasun Planak Azpeitiko Udalaren teknikariek eginak izan dira. Horien artean azkena, Irisgarritasun Plana 2015-2019 izenarekin izan da, bere eranskin eta guzti.

Azken Plan horretan jasotako obra lan asko exekutatuak daude gaur egun eta, ondorioz, planak eraberritzea eta beharren berraztertzea eskatu du.

Hori horrela, Azpeitiko Udalak Irisgarritasun Plan berria egiteko "Irisgarritasun Plana 2020-2024" izenarekin Irisgarritasun Plan berria egitea erabaki zuen. Aldi berean, AGINDUA, 2019ko uztailaren 24koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena. Honen bidez, udalenzako, tokiko organismo autonomoentzako, toki erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak arautzen dira, eta horietarako 2019ko ekitaldirako deialdia egiten da, hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko xedez Arautzen zituen dirulaguntza eskatu zuen.

Etxebizitzako Sailburuordearen 2019ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bidez eskatutako dirulaguntza onartua izan zen.



Azpeitiko Udala

DAZKARITZA

Plan berri hori egiteko Javier Regalado Herrero kontratatu zuen Kontratuen Legeak ezartzen duen prozedura medio.

2021eko abuztuaren 6an, 5204 sarrera zenbakiarekin, Javier Regalado Herrero "Plan de Accesibilidad de Azpeitia" izenarekin, gaztelaniazko bertsioa, Azpeitiko Udalean Planari sarrera eman zion (euskarazko bertsioa ekartzea falta da).

Eta kontuan izanik aldekoa dela Estrategia eta Hirigintza Batzorde Berriemaliak emandako txostena, Udalbatzako kideek aho batez, eta beti ere legezko kopuruaren gehiengoarekin, ONARTU DU:

A) AZPEITiko Irisgarritasun Plana (2021) izeneko dokumentua.

*Dokumentua espedientean jaso da.

B) Dokumentu honetan jaso diren jarduerak 2020-2024 epealdia izango du.

C) Akordioa, eta dokumentua bera Udalaren Web orrian argitaratuko da.

Eta horrela jasoa gera dadin eta, alkatearen on iritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hogeita bateko irailaren hamahiruan.

O.E.
ALKATEA,

